




AUZOZ AUZO: HERRI AUTOBUSAK URTEBETE

# Arrasate

P R E S S

2001.eko  
Irailaren 14a  
550. zenb.



**Bizitzaren aldeko  
karabanan Kolonbian**





**ETXE MOBEL**  
MUEBLES ALTZARIAK

Araba Etorbidea 5 •  
Tel. / Faxa: 943 79 41 82  
**ARRASATE**




**RKUZ**  
ALTZARIAK

Araba etorbidea 20 •  
Tel. / Faxa: 943 79 23 51  
**ARETXABALETA**



**RKUZ**  
ELEKTROGAILUAK

Asunción, 1 •  
Tel. / Faxa: 943 79 10 97  
**ARETXABALETA**

**expert** 



**RKUZ**  
SUHARDE INTEGRALA

Mitarte 3 •  
Tel. / Faxa: 943 77 04 55  
**ARETXABALETA**

**FAGOR** 

**50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.**

**Eskerrik asko emandako konfiantzagatik**




## urteurrenak

### Parrokia berritzeko asmoa

■ 76. zenb.

(1990eko irailaren 14an idatzi genuen)

Jose Maria Astigarraga parrokoak Gipuzkoako Gotzaindegira eraman du San Juan Bautista eliza berritzeko egin den aurre-proiektua. Mikel Lasa eta Alberto Mendieta arkitekto arrasatearrek egin dute. Eraberritzea aztertzeko, hamalau herritarrek batzordea osatu dute eta parrokia berritzeko obraren aurrekontua 200 milioi-tik gorakoa izan daiteke.



### Ingurugiro Eskola

■ 76. zenb.

(1990eko irailaren 14an idatzi genuen)

Udalako Ingurugiro Eskolako obrak bukatzeaz daudenean, dirulaguntzak lortu gura dituzte arduradunek, irailaren 25ean Eusko Jaurlaritzan egin beharreko batzarrean. Obrak amaitutakoan, urrian, espe-rientzia pilotua abiaraziko da, eta 500 ume inguru igaro ondoren, Udalean eztabaida ireki beharko da eskolaren etorkizuna, anto-laketa eta langile mota erabakitzeko.

### Drogamenpekotasunen prebentzioa

■ 76. zenb.

(1990eko irailaren 14an idatzi genuen)

Udalak drogamenpekotasunen prebentziorako zerbitzua abiarazi zuen urtarrilean. Atal honek, Ongizate Sailaren baitan, asistentzian dihardu lanean, eta kontsumo egoerak eraginda daudenei informazioa ematea du oinarri. Bestalde, prebentzio mailan eragile eta baliabide ere bada. Udaleko Ongizate Sailak liburuxka kaleratu du zerbitzua ezagutzera emateko.

## besteek esana



Jausi egin da mundu mailako EEBBen botere militarren sinbolo edo irudi kontsolidatua. Horrekin batera, hondamendi humanitarioa ere badago; baina ikusi egin behar dugu une honetan dagoen ezustea ez dela gertatu Txetxenien aurka milaka eta milaka hildako eragin dituztenean edo une honetan palestinarrek pairatzen duten egoeraren aurrean, edo EEBBek misilik erabiliz Libian eta Iraken antzerako gauzak egin dituztenean... Horiek gauza normal moduan ikusi ditugu. Orduan ikusten da guztiok ez garela berdinak: EEBBetan horrelako zerbait gertatzen denean katastrofe humanitarioa da, baina munduko beste herrietan gertatzen denean ez da katastrofe humanitarioa ».

Anton Mendizabal

IRAKASLEA

Arrasate Irratia

(2001eko irailaren 12a)

**ARKO**  
ARRASATE  
KOMUNIKABIDEAK

**ARRASATE PRESS**  
Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31  
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89  
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net  
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

**Laguntzailea:** Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitate:** Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemaldea:** Lorea Aginiano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28).  
© ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Legu-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Franko kontzertatua. **Inprimetgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Arrasateko Udalerri laguntza

Gipuzkoako Foru Aldundien laguntza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

## aurkibidea

• Lehen begiratu . . . . .	3	• Orain eta hemen . . . . .	8/11	• Auzoz auzo . . . . .	24
• Asteko hitzorduak . . . . .	4	• Txutxumtxuak . . . . .	12/13	• Etorri eta gelditu . . . . .	25
• Herritarren berbak . . . . .	5	• Aurrez aurre . . . . .	14/15	• Kulturaren txokoa . . . . .	26/28
• Astearen errepasoa . . . . .	6	• Kirolak jokoan . . . . .	19/21	• Uhinetan barrena . . . . .	29
• Inkesta . . . . .	7	• Beheko denda . . . . .	22	• Foto zaharra . . . . .	30



Arrasateko euskalgintzak Iñaki Sáez omenduko du gaur 20.15etan Herriko plazan .



## ZERBITZUAK

### Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00  
Iguualtoia . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea  
(gizonak) . . . . . 943 79 39 00  
(emakumeak) . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

### Larrialdiak

SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57

### Anbulatorioak

Guardiako medikua. . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
asteburu eta  
jai egunetan. . . . . egun osoa  
Arrasate  
Astelehenetik  
Barikura . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko: medikuntza  
orokorra eta pediatria . . . . . 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak: . . . . . 943 03 53 11  
Aretxabaleta . . . . . 943 79 74 58  
Aramaio . . . . . 945 44 53 40

### Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

### Ertzaintza

Arrasate . . . . . 943 79 71 99

### Suhiltzaileak

Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde-Parkea . . . . . 088

### Matxurak

Urak (udal zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
. . . . . 943 79 78 44  
. . . . . 943 79 76 78

### Garraioak

Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10

### Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

### Monterron liburutegia

Monterron . . . . . 943 77 01 05

## MEZAK

### San Joan parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

### San Frantzisko eliza

<b>Zapatua</b>	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
<b>Domeka</b>	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

### Uribarri parrokia

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### San Andres eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

### Santa Teresa eliza

<b>Zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

### Santamañako eliza

<b>Jai egun bezpera eta zapatua</b>	<b>Domeka</b>
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

## Iñaki Sáez-en omenez

Arrasateko euskalgintzak omenaldi xumea egingo dio Iñaki Sáezi irailaren 14an, egu-

bakoitza, Herriko plazan, 20:15ean.

## gripearen aurkako kanpaina

Gripearen aurkako txerto kanpaina irailaren 17an hasiko da. 65 urtetik gorakoei eta gai-xotasun kronikoren bat duten 65 urtetik behe-

rakoei dago zuzendua. Txertoa ambulatorioan hartu ahal izango duzue, astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 17:00etara.

## odol-emateak

Odola Sartzeko Euskal Zentroak herriko odol emaleei dei egiten die hilaren 17an

egingo duten odol-ateratze saiorako. Ambulatorioan izango da, 16:30etik 20:00etara.

## danborradako arropak

Hona hemen San Juanetako danborradetako arropak itzultzeko epeak: irailaren 17tik

21era, 18:30etik 20:00etara, SUDCen egoitzan, Pablo Uranga kaleko 4. zenbakian.

## alkartasun eguna

Irailaren 23an, EA alderdiak Alkartasun Eguna ospatuko du Eltziegion. Arrasateko taldeak autobusa antolatu du; irteera 11:00etan

izango da. Izena emateko, jo Alkartetxera edo deitu 943712788 telefonora, irailaren 18a baino lehenago.

## manifestazioa

Atzeratu egin da AABBeK antolatutako *Irtenbide Demokratiko baten aldeko Eguna* Oñatin, egun berean manifestazioa egingo dela-

ko Bilbon, irailaren 15ean, hain justu. Txartelak salgai daude Iratin. Autobusa Garibaitik irtengo da, 15:30ean.

## GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

### Egubakoitza, 14

- Morales, Araba

### Zapatua, 15

- Irizar, Erguin

### Domeka, 16

- Amezua, Santa Marina

### Astelehena, 17

- Zabala, Zarugalde

### Martitzena, 18

- Ruiz, Magdalena

### Eguaztena, 19

- Morales, Araba

### Eguena, 20

- Azkoaga, Ferrerías

## Matrikula epea, zabalik

Irailaren 28ra bitartean izango duzue aukera Jesusi Etxebarria Musika Eskolan izena emateko. Jo akademiara, 17:00etatik 21:00etara, edo deitu 943 79 17 67 edo 652 71 38 28 telefonoetara.

## liburutegia, itxita

Irailaren 8an eta 15ean, biak zapatua, Monterrongo liburutegia itxita egongo da.





## Herritarren berbak

# Lagunai

## Ander Elortondo Bergaretxe / Laguna

Samiñe. Amurrue. Ezintasune. Danak mal-koz idazten die. Berbak, nik hiru botateko gai besterik ez nitzen izan: "Joder, Iñaki ez". Malkuek berbak esaten ez dauena garbi erakusten daue. Ikesittekuek gare danok hilko garena, bai, baiña ez kamioi baten azpixen.

Kamioi batek eraman dus-kuna Lambreta baten eto-  
rri jakun Amañatik Arra-  
satera. Euskerie era-  
kustera. Urtiek emun  
zittun zeregin horre-  
tan, eta bertan ezautu  
nauen nik. Klase  
ostien Iturrin edaten  
gauen sagardue, axpu-  
ruaz lagundute, halaxe  
gustetan jakon eta. Bertan  
elkarren mobidak aittuten geni-  
ttun eta bixon ilusiñuek elkar bana-  
tu. Maisu Iñaki deitzen eutzien kuadrila-  
kuek, eta hala da, bizitza hontan asko ika-  
si dot nik Iñakigandik eta. Eta bide bazta-

rrien juen jako berai bizitza. Inork ez lau-  
kien egin biher bide baten. Ni Iñakigatik  
nabil negarrez, baiña Arantxa, Rosa, Pilar,  
Alfonso, Matilde, Antxoni, Mari Karmen,  
Ruben eta Asierrek be euki ditzuzte euren-  
gatik negar egin dauen senide eta lagunek.  
Danak bidien juen jakuz. Egin biherrik ez

dauen eta egittera bihurtzen gai-  
tuzten bide baten. Samiñe,

amurruek errudunek  
topetara bultzaketan  
dust. Baiña badakit

Iñakik gehixau gure-  
ko zauela konpon-  
bidie topetan hastie,  
bidien geratutako  
beste batengatik  
malkorik ez daixen  
egon, errudunek ezau-  
tu arren.

"Iñakik gehixau  
gureko zauen  
konponbidie topetan hastie,  
bidien geratutako beste  
batengatik malkorik ez  
daixen egon, errudunek  
ezautu arren"

Azken sagardo eta axpuruaz

Arrasateko gaztetxoentzat bukatu barik  
utzi giñun hire joku proiektue, nire kontu  
Iñaki.



## aste gazte

### ■ DIRULAGUNTZAK

- Unibertsitatean edo uniber-  
tsitatek kanpo ikasketak egite-  
ko izaera orokorreko beka. Eus-  
ko Jaurlaritzaren eskutik. Epea:  
urriak 15.

- Gipuzkoako Historiari  
buruzko ikerketa beka bi. Goi mai-  
lako unibertsitate tituludunenda-  
ko. Foru Aldundiaren eskutik.  
Epea: urriak 20.

### ■ LANA

- Gipuzkoako Foru Aldundi-  
ko Uliazpi Fundaziorako, eguneko  
zentroko eta etxebizitzako ardu-  
raduna, kudeaketako teknikaria,  
gizarte graduatua, programa bere-  
zietako erdi mailako teknikaria  
eta gizarte langilea. Epea: irailak  
18.

- Irungo Udalak hezlea behar  
du. Epea: irailak 17.

- Hernaniko Udalerako ema-  
kumeen aukera berdintasunera-  
ko teknikaria. Epea: irailak 19.

- Abadiñoko Udalerako admi-  
nistraria eta udaltzainak behar  
dira. Epea: EAOn argitaratu zain.

- Beasainen gizarte dinami-  
zatzalea behar da. Epea: EAOn  
argitaratu zain.

### ■ IKASTAROAK

- Urtxintxa Eskolak ikastur-  
terako antolatu dituen aisialdiko  
hezleendako ikastaroak: begira-  
lea, zuzendaria, ludotekak, gaz-  
telekuak, euskal jolasak, euska-  
ra suspertzailea, heziketa behar  
bereziak, hezkidetzak, adierazpen  
tailerra eta malabarista tailerra.  
Epea: irailak 28.

- Hezkide Eskolaren eskain-  
tza: begiralea, zuzendaria, jolasa  
eta ludotekak, suspertze sozio-  
kulturala, boluntariotza, talde  
dinamikak, adineko pertsonen  
begiralea, tratu txarrak, kulturen  
arteko hezkuntza, lankidetzak...

### Argibideak:

**GAZTE ZERBITZUA**

943 77 00 65



## USTEAK USTE

### Adiorik ez, lagun

**D**enon ahotan badago ere, beste egun baten hitz egingo dugu ustezko III. Mundu Gerraz. Nahiago nuke asteburuan galdu genituen Asier eta Iñakiri buruz gogoeta egitea. Ez nuen Asier ezagutzerik izan; bai, ordea, Iñaki. Amañakoa jaitotzez, Arrasatera etorri zen AEKn lan egitera. Ez nuen orduan harekin harremanik izan, baina badakit buru - belarri ibili zela euskararen eta herriaren alde lanean. Gerora, Txatxilipurdin lanean hasi eta Iñaki ezagutzeko aukera izan nuen. Apala, zintzoa, jatorra, sentibera eta beti laguntzeko eta lan egiteko prest. Lagunen eta gertuko en artean hutsune handia utzi duena, noski. Ezin ahaztu ezta gitarra hartu eta kantatzeko zeukan zaletasuna ere. Rockero zaharrak beti rockero, badakizue! Gerora, Emunera jo zuen, betiere euskara indartzea helburu zeukala, eta neuk Arrasatetik alde egin banuen ere, Soraluze-ko herrian zeuzkan proiektuez eta bizitzaz mintzatzen ginenez noizbehinka. Adiorik ez, besarkada handi bat zuretzat!

Iker Barandiaran

## astea bi hitzetan

### ■ Salaketa

Alde Zaharreko Tabernarien Elkartek salatu egin du joan den zapatuan Ertzaintzak izandako jarrera. Eman-dako informazioaren arabera, goizaldeko 01:20an Irati tabernan sartu ziren, oso modu txarrean. Zerbitzariak zertara joan ziren galdetu zirenean, ertzainek barrako edalontzi guztiak eta AAB-Ben itsulapikoak apurtu zituzten. Tabernarien Elkar-teak adierazi digunez, jende gehiena kanpora irten zen orduan, baina batzuk barruan geratu ziren eta ertzainek iraindu egin zituzten, mehatxatu eta "baten bati esan zioten harrapatu egingo zute-la". Handik irten eta Ekaitzen sartzen saiatu ziren, baina hango arduradunak ez zien utzi. Horrekin batera, Tabernarien Elkartek sala-

tu gura du Barne Sailak ertzain etxeari egindako erasoaren berri eman zuela, baina ez zuela ezer esan beste-lako gertakarien gainean. Era berean, elkartek gaineratu du Ertzaintza geroago eta gehiagotan jarrera mehatxatzailea erakusten dabilela.

### ■ Berrito eskolara

Batzuen saminera eta beste batzuen pozerako, bueltatu dira Mondragoeko ume gehienak urteroko lanera: ikastera, alegia. Institutuko ikasleak izan ziren goiztiarrenak, egubakoitzean hasi zuten eta ikasturtea DBHko ikasleek. Astelehenean, berriz, eskola publikoetako ikasleen txanda izan zen eta eguaztenean Arizmendi ikastolako ikasleena. La Merced Ikastetxeak 3an ire-

ki zituen haurtzaindegiaren ateak. DBHkoak oraingo asteko astelehenean hasi ziren eta Haur eta Lehen hezkuntzak martitzenean. Ume-zaintza joan den martitzenean, 4an, hasi zen lanean.

### ■ Baserri bideak

Uztailean lanak adjudikatu eta gero, oraingo astean hasi dira Bedoña eta Garagartzako baserri bideak konpontzen. Hain justu, Garagartzan Artia, Zahatza eta Ibarluze-ko baserrietara doazen bideak konponduko dituzte eta Bedoñan, berriz, Erlamendirakoa.

Udalaren helburua da auzo eta baserri bide guztiak egoera onean izatea. Lanak hamabost bat egunean bukatuko dituzte, eta hamahiru milioi pezetan inbertituko ditu Udalak.

### ■ Arantzazuko Ama

Sekula baino jende gehiago izan da aurten Arantzazun Amaren eguna ospatzen. Izan ere, frantziskotarrak Arantzazura joan zirela V. mendeurrena ospatzen dela eta, ikusmina handiagoa izan da. Agintariek ere urteroko bisita egin zuten, tartean Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Hura heldu zenean sartu ziren guztiak meza nagusia entzuterat. Juan Mari Uriarte gotzainak esan zuen meza eta Arantzazu izadi-leku, arte-leku,




fedeleku eta bake-leku dela gogorarazteaz gain, besteak beste, euskal gizarteak bizi duen gatazkaren ondorioz kaltetuak direnak gogoratu zituen, eta atxilotuenganako

errespetuzko tratua ere eskatu zuen. Senideak elkartek kale agerraldia egin zuen Santutegiaren atarian, euskal presoek bizi duten dispersio egoera salatuz.

## UGARAN jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel: 943 79 76 58  
ARRASATE



### Gambrinus garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

M

## MEMESA

Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25



# Konforme zagoz Kontxako Banderan epailiek hartutako erabakixakin?

*Ordu eta erdi batuta egon eta gero, epailiek erabaki euen aurtengo irabazlia Castro dala.*



**Bernabe Arrese**  
(Jubilaue)

Ez nago bat be konforme epailien erabakixakin. Castrok "jugadie" egin euen, eta ez dago eskubiderik hori egituko. Hori txarto egingde dago.



**Julen Aranbarri**  
(Ikaslie)

Erabaki horren aldekie naz. Neure ustez, Oriok ez euen garbi jokatu.



**Jurgi Duque**  
(Ikaslie)

Castro irabazle justue da. Orio Castroren kalien sartu zan, eta txarto egin euen. Ez jat ondo pentsetan Castroko patroiak, Kortak, euki dauen jarrerie.



**Dorleta Villar**  
(Langillie)

Ez neuen ikusi, hortaz, ez dakit zeinek dauken arrazoie. Hala eta be, ni Orion aldekie naz, baiñe justuena egin biher da.



**Roman Ezeiza**  
(Langillie)

Poztu nitzen Castrok irabazi euelako. Ez naz Castro-zalie, baiñe Oriok beti ezin dau irabazi. Orixoko herrixek be esker-tuko dau. Beti ezin irabazi.



**Ana Diez**  
(Langillie)

Neuk ikusi doten irudixen, Castro irabazle justue da, baiñe neure interpretaziñue da.



**Agurtzane Mondragón**  
(Langillie)

Kostaldien bizi dan bati zera entzun nutzen, Tranposuen artien tranposuenak irabazi dauela.



**Amaia Zurriaran**  
(Ikaslie)

Irabazle garbixek izan die, Castro irabazle justue da.

**TTUKUN**

Fotokopiak  
Liburu josteak  
Fotokopiak koloretan  
Planoen kopia  
Offset-a

Ferrerias, 23 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 46 62



**Txitxinpe**

Berezitasunak  
Kazuelatxoak  
Otarateko hotz eta beroak

Arrasate Pasealekua, 33  
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



Bonaventure • Diesel  
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE  
Tel.: 943 79 11 72

**ARRASATE  
HOTELA**



Biteri, 1 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 14 16



## Euskara guztion eskura

Udal euskaltegien aurtengo matrikulazio kanpaina abian da. *Zuk ahal duzu, exprésate en euskera* leloarekin, euskara guztion eskura dagoela adierazi gura izan du kanpainagileak, Goienako Publizitate Sailak, eta euskara ikasteko lekurik egokiena udal euskaltegiak direla. Aurten, gainera, hamar mila ikasle baino gehiago eduki gura dituzte. Izan ere, iaz, bederatzita mila eta bostehun ikasle izan zituzten eta kopuru hori gaintzea da helburua. Horretarako, zenbait berritasun egingo dira euskaltegietan. Besteak beste, euskara ikaslearen eta irakaslearen artean autonomia areagotzeko helburua dute.



Kanpaina joan den egubakoitzean aurkeztu zuten Eudelen, Bilboko egoitzan. Hantxe izan ziren, Goienako Publizitate Sailarekin eta Udal Euskaltegien zuzendariarekin batera, euskal gizarteko aurpegi ezagunak: adibidez, Julio Iba-

rra, ETBko aurkezlea edo Peter Roberts, Donostian bizi den mimo eskoziarra, kanpainaren protagonista. Herri askotako alkateak ere han izan ziren: Gernika, Oñati, Elgoibar eta Ermukoak, adibidez.

## Jolasa

Ikasturte hasierarekin batera, Txatxilipurdi elkarteak jolas egiteak dituen onurak gogorarazi gura ditu. Aisialdi elkarteak adierazitakoaren arabera, "badirudi jolas egiteko epea udarekin batera amaitu dela, eta udazkenak eta negu ilunak ikasteko gonbita baino ez digutela eskaintzen". Txatxilipurdiren ustetan, "gizarteak ez du kontuan hartzen jolas egiteak ume baten garapen prozesua aberasteko duen ahalmena". Umearen afektibitatea, alderdi psikomotorra, adimena, irudimena eta zentzumenak lantzen direla gogorarazi du Txatxilipurdik. Horrekin batera, salatu egin dute jolasa umeen egunerokotasunetik baztertzen dugula ekintza akademikoen mesedetan. Hori dela-eta, Txatxilipurdik hezkuntza ez formalak duen garrantzia aldarrikatu gura du.

## Plan Estrategikoa abian jartzekotan

Euskararen aldeko Kontseiluak Bai Euskarari akordioa herrian garatzeko proposamena egin zuen iazko urrian. Arrasateko Euskalgintzak (13 taldekoa) proposamena onartu zuen. Horrek esan gura du Kontseiluak Euskal Herrian egindako Bai Euskarari egitasmoa Arrasaten garatuko dela.

Proposamena jaso zuenetik, azarotik hona, hamabi bat batzar egin ditu herriko euskalgintzak, eta joan den martitzenean Plan Estrategikoa garatu ahal izateko aholkula-




ritzaren enpresa zein izango den erabaki zuten. Hain justu, Emun aholkularitza enpresari emango diote lana. Emunek zehaztuko du plana garatze-

ko metodologia zein izango den, eta enpresa hori arduratu da jendearen partaidetza bultzatzeaz eta dinamizazio lanez.

## Udaleko oharrak

2001eko bigarren hiruhilabetekeko ur eta zabor zergaren ordainagiriak ordaintzeko borondatezko epea ezarri du Udalak. Hain justu, 2001eko urriaren 11ra arteko epea izango da ordaintzeko. Behin epe hori igarota, ordaindu barik dauden ordainagiriak %20ko gainkarguarekin kobratuko dituzte.



**IBABE  
GARAJEA**

**MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA**

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**HIES  
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99





## 2001-2002 EUSKARA IKASTAROAK

### Eskaintza

EUSKALDUNTZE maila guztiak, ALFABETATZE, EGA eta HIZKUNTZA ESKAKIZUNAK  
Ikastaro bereziak: merkataritza, sakontze, Arrasateko euskara...  
Autoikaskuntzarako multimedia sistema "hezinet"

### Erritmoa

Egunean ordu bat, ordu eta erdi, bi ordu...  
Astean 2, 3, 4 eta 5 egunetan.  
Txandakako taldeak.

Beka sistema daukagu. Informa zaitez!

### Bulego ordutegia

Goizean: 10:00-13:00  
Arratsaldean: 15:00-18:30

### Matrikulaldia

Irailaren 3tik 21era.

## ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA

Arimazuri plaza, 2 (Eskola Politeknikoaren ondoan) 20500 ARRASATE  
Tel.: 943 79 70 77 • Faxa: 943 79 91 43  
euskaltegi@arrasate-mondragon.net

HABEren dirulaguntzaz.



## Tour Lehiaketa Mundiala

Lizarralde  
Kirolaken Tour  
lehiaketa  
mundialaren  
irabazlea:

## Aitor Iturriaga

Zorionak Aitor!!!



# EMAKUMEON TXOKOA

## DOAKO IKASTAROA

### EMAKUMEEI ZUZENDUTAKO SOLDADURA IKASTAROA.

**INSKRIPZIO EPEA ZABALIK DAGO BERRIRO.**

Ikastaroak 400 orduko iraupena izango du, izena eman gura duenak, Udaleko Enplegu sailera zuzendu behar du bere eskaria, 943790900 telefonoan.

### AUTODEFENTSA IKASTAROA.

18tik 40 urte bitarteko emakumeei zuzenduriko ikastaroa. Arlo fisiko zein sikikoa lantzen da ikastaro-tailer honen bidez, neskek eta emakumeek bere burua defenditzeko baliabideez eta jarrez kontura daitezten.

**Ikastaroa irailaren 28 eta 29an**

(ostiral arratsaldea eta zapatua goiz eta arratsaldez). Inskribatzeko, Emakume Sailarekin kontaktuan jarri, 943790900 telefonoan edo [emakume@arrasate-mondragon.net](mailto:emakume@arrasate-mondragon.net)

### "EMAKUMEAK EUSKAL HERRIKO HISTORIAN" IKASTAROA.

Urritik abendura bitartean izango da ikastaroa (asteazken behin), ikastaro teoriko-praktikoa izango da, Euskal Historian emakumeek izandako partaidetza, mapen, planoen erabilera, irteera kulturala,...

**Informazio gehiago Emakume Sallera, 943790900 telefonoan edo [emakume@arrasate-mondragon.net](mailto:emakume@arrasate-mondragon.net)**

### IV KOMIKI EZ SEXISTAREN SARI BANAKETA, MONTERRONEN IRAILAREN 28AN.

### "GAZTEEN EKIMENAK" XII. ARGAZKI LEHIAKETA.

**Parte hartzaileak:**

- Debagoieneko 13-17 urte bitarteko gazteak.
- 18-35 urte bitarteko edozein.

Emakume sailaren sari berezia (beste batzuen artean): Emakumezkoen ikuspuntua, errealitatea, mundua hobeto islatzen duen argazkia: 50.000pezetan.

**Lanak aurkezteko epea: urriaren 11.**



ARRASATEKO UDALA

Emakume Salla ■

## Gripearen aurkako txertoa

Gripearen aurkako urteroko borrokan, gripearen kontrako txertaketa kanpainari ekingo diote datorren hilaren 17an, urriaren 31 arte. Betiko moduan, 65 urtetik gorakoendako eta gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoendako izango da; adibidez, diabetesa edo bihotzeko, birrikako edo giltzurruneko gaitzen bat dutenendako.

Herriko ambulatorioan ez eze, pertsona nagusiei bidea errazteko auzoetan ere hartu ahal da txertoa. Leku horietara joateko ordutegia astelehenera egubakoitzera, eguerdiko 12:00etatik 13:00etara.

Ambulatoriora, berriz, goizez zein arratsaldean joan ahal izango da, 09:00etatik 17:00etara.

Era berean, etxetik irten ezin diren nagusiek euren mediku edo erizainarekin berba egin eta txertoa etxean hartu ahal izango dute.

### BOLANTEA

Hirurogeita bost urtetik gorakoak zuzenean joan daitezke txertoa hartzera, bolante barik. Gaixotasun kronikoren bat duten 65 urtetik beherakoek, berriz, txartela jaso beharko dute medikuaren edo erizainaren kontsultan.

### NOIZ ETA NON

Irailak 24, astelehena: San Andresko alkatetzan

Irailak 25, martitena: Iturbideko zaharren egoitzan

Irailak 26, eguaztena: Uribarriko zaharren egoitzan

Irailak 27, eguena: Santa Marinako zaharren egoitzan

Irailak 28, egubakoitza: Musakolako zaharren egoitzan



## Ertzainen etxeari eraso egin zioten asteburuan

Zapatu gauean, 11:15 inguruan, 50 bat kaputxadunek herriko ertzainen etxeari eraso egin zioten. 30 molotov koktel jaurti zituzten eta kalteak eragin zituzten eraikinean eta Ertzaintzaren lau auto ofizialetan.

Ertzaintzak aditzera eman duenez, ertzain etxetik gertu, Maala kalean, eztanda egin bariko 16 molotov koktel, txanoak, eskularruak eta jertseak aurkitu zituzten, guztiak ere kale erasoan erabilitakoak.



# Presoen dispertsioa salatzen



Euskal presoen dispertsioa salatzen zenbait ekintza izan dira herrian oraingo astean. Izan ere, joan den zapatu goizean, bi gazte soraluzetar auto istripuan hil ziren eta beste bat larri zauritu, Lurdes Txurruka presoaren bisitatza zihozela, Avilara. Asier Heriz eta Iñaki Sáez dira hildakoak eta Iranztu Benito, Iñaki Sáezen neskalaguna, zauritutakoa. Iñaki Sáez, 39 urteko amaïarra, Sorluzen bizi zen, baina Arrasatekin eta, bereziki, Mondragoeko euskalgintzarekin, lotura handia izan duen pertsona izan da. Emuneren egiten zuten lan. Hori dela eta, eta AABBK eta Senideak-Gureak elkarteak egindako deiari erantzunez, Mondragoen zapatuan eta martitzenean kale agerraldiak egin zituzten Seberren.

## EUSKALGINTZA

Bestalde, eta Iñakik Mondragoeko euskalgintzarekin izan

duen lotura dela-eta, eguaztenean prentsaurrekoa egin zuten euskalgintzan lanean diharduten herriko taldeek, Emun, AED, AEK, EHE, Ekin Emakumeak, Euskalan baita Senideak elkarteak ere. Julen Arexolaleibak, Emuneko presidentea eta Iñakiren lagunak, taldeen izenean berba egin zuten eta Iñakik euskararen alde egindako lana goraiatu eta gero, gaur, egubakoitza, iluntzean herriko plazan 20:15ean egingo dioten omenaldia iragarri zuten. Elkarte horietako partaideek lagun moduan omentzea eta egindako guztiagatik eskerrona eman nahi izan diote Iñakiri.

Omenaldiaren leloa honakoa izango da: *Gazteak gara, eta indarra sobera, altza dezagun gora, euskara. Gazteak gara eta, indarra sobera, aterra behar dugu, kalera!*, Iñakik berak Txatxilipurdin egindako abestia, hain zuzen ere.

## MOZIOA

Horrez gain, eta heriotza hauek direla-eta, herriko Udalak dispertsioa salatzen duen mozioa landu zuen atzoko osoko bilkuran, Senideak-Gureak elkarteak eskatuta. Hildakoen senitartekoei dolumina eta zauritutakoari babesa emateaz gain, euskal presoen eskubideen aldeko eta dispertsioaren kontrako mezua berretsi zuten. Horrekin batera, Udalak Giza eskubideen alde, Euskal Presoak Euskal Herrira lelopean bilkura isilerako dei egin zuten gaurko, egubakoitzerako. Seberren izango da, 20:00etan.



## IÑAKI SÁEZ

Hogeita hemeretzi urte zituen eta Sorluzen bizi zen, nahiz eta jaiotzez amaïarra izan. Euskararen alde bide luzea egin du Iñakik, bereziki, Mondragoen. AEK-ko irakasle izan zen, Txatxilipurdin ere ibili zen eta azkenaldian Emun aholkularitza enpresan ziharduen lanean.

# Zerga batzuk aldatuko ditu Udalak

Etxebizitzaren gaineko zergak aldatuko ditu Udalak 2002. urteko agintaldian. Halaxe jakinarazi zuten atzo oporren osteko lehenengo osoko bilkuran. Kontua da Gipuzkoako Foru Aldundiak etxebizitzaren balio kastastra eguneratu egin duela eta merkatuan dauden balioak ezarri dizkiola zoruari. Izan ere, etxebizitzaren zaharren eta berrien balioen arteko desberdintasuna oso handia da gaur egun. Zoruari merkatuko balioa ezartzean, Diputazioak lortzen duena da etxebizitzaren zaharren eta berrien prezioa parekatzea, hortaz, etxebizitzaren balioa izugarri igoko da.

## ERAGINA ZERGETAN

Horren ondorioz, Arrasateko Udalak (beste guztiak moduan) zergak batzeko modua ere aldatu behar izango du. Hainbat formula aztertu eta gero, Udaleko Hazienda batzordeak uste du bataren zein bestearen zergak antzerakoak izateko, hementik aurrera tipoa 0'154koa izango dela (orain arte 0'54koa izan da). Hori dela eta, arrasatearren erdia inguruk orain arte baino gehiago ordaindu beharko du eta beste erdiak gutxiago. Edozelan ere, albiste hau idaztean oraindik batzarra egin barik zegoen, hortaz, ez dakigu Hazienda batzordeak proposatutakoa onartu duten edo ez.

**"PAL"**

burdindegia,  
brikolage  
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3  
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**OSORIK  
PUB**

Ignazio Zuluaga, 4  
ARRASATE



**Edertu**

Ile apaïndegia • Solariuma

Maritxu gau berezitarako  
orrazkeratik ederrena

San Andres auzoa • Tel.: 943 79 04 28  
ARRASATE






## PANPINEN ETA PERTSONEN ARROPAK...

... garbitu eta plantxatu egiten dituzte Arrasateko hiru laguntxok. Nortzuk diren? Bada, argazkiko bi neskak eta beste adiskide bat. Esan digutenez, oso finak dira hirurak, zure eta zure panpinen arropak berri-berriak utziko dituzte. 658 73 90 06 da euren telefonoa.



## MUNDUARI BIRA... EDO IA-IA

Hona hemen Jone eta Ane adiskideak, oportetan ateratako argazkian. Somon daude, Santanderrera eramango dituen itsasontzia hartzeko zain. Laredon pasa zituzten oporrak, baina Kantabria eta mundu zabalaren zatitxo bat bisitatzeko ere aprobetxatu zuten bi bidaiari gazteok.



## BARTZELONATIK BISITAN

Banoa bidaia agentziako kudeatzaileak izan genituen lehengo egunean Goienan, Bartzelonatik etorriak. Jon Lazkano mendizaleak eurekin egiten du lan, eta hura ere etorri zen. GOITBrekin proiektu bat egitekotan ari dira, eta horretaz berba egiten izan ziren eta, bide batez, gure egoitza bisitatu zuten.





## EZETZ HARRAPATU!

Uribarriko kale aldeko jaiak izan ziren joan den asteburuan. Tarteka-marteka euria izan zuten, baina horrek ez zituen ospakizunak ilundu. Bi laguntxo hauek, adibidez, pozik asko aritu ziren elkarri zirikatzen!

## EGURALDI ONA, UMORE HOBEA

Horiexek izan zituzten lagun joan den asteburuan Corazon de Encina kultura elkarte extremadurarreko bazkideek. Extremadura Eguna ospatu zuten Landako urtegian. Lehiaketak, bazkaria, jolasak eta beste hamaika ekintza egin zituzten. Hurrengo urtera arte!



## ITZULERA, ZEIN GOGORRA!


Gaztetxoenen oporrak bukatu dira, bai, baina ez ziren oraindik amaitu laguntxo hauek Arrasate Irratira etorri zirenean. Hain justu, eskolen hasieraren bezperan etorri ziren, ikasturteak zer ekarriko diena-ren gainean berba egitera. Animo, ikasle guztioi!



**ERRASTI KRISTALDEGIA**

**Plastiko eta burdinazko hodiak  
beirina eta kristalak  
osagaiak**

Olarte kalea, 47 behea Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**Maritxu Kajoi**  
egunerako makilatu eta orraztu  
**3.300** ptatik aurrera

**ZATOZ!**

Maalako Errabala, 21-B  
ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31



## AMAIA ARRIZABALAGA (BRIGADISTA)

# «Kolonbiako gobernu

Amaia Arrizabalaga mondragoetarra Kolonbian izan da operetan. Baina ez hango hondartzak eta parajeak bisitatzen. "Bizitzaren aldeko karabana internazionalista"ko partaide izan da, Euskal Herriko beste 13 lagunekin batera, guztiak Komite Internazionalistak taldeko brigadistak. Kolonbiatik laguntza eskaera jaso zuten iaz eta hantxe izan dira aurten. Guztira, 68 lagun. "Beldurrak egon gara, baina esperientzia izugarria izan da. Oso gustura ibili naiz". Europako koordinazio lanez arduratu dira Amaia eta bere lagunak. Kolonbiatik hango herritarren egoera latza kontatzeko eskaera ekarri du, eta horri erantzunez hauxe kontatu digu:

— Zein izan da helburua?

— Bolivariko hegoalderako karabana antolatzea, hango bizilagunei laguntzeko. Horrez gain, han beste arazo bat ere badago: mehatxupean bizi diren herritarrak, eta haiek kalean ibili ahal izateko internazionalisten presentzia behar izaten dute; hortaz, "bizkartzain" lanak betetzen ere ibili gara.

— Non egon zarete?

— Karabana Bolivarren sartu da, baina gu Bolivar hegoaldera joan gara. Uztaila Barranca Bermejan pasatu dut. Bolivartik gertu dago hori, eta Bolivarren eta Barrancaren artean Magdalena ibaia dago.

— Hori dela-eta, nahiko karabana berezia izan da...

— Bai, inguru hartara hel-

komunikabideena (handik ez da informaziorik irteten). Guri, adibidez, Kolonbiako gobernuak galdetu zigun ea zertarako gindoazen hara, han ez zela inor bizi, bakarrik behiak eta gerrillariak.

Eta guk ikusi dugu han 150.000 bat lagun bizi direla, oso egoera larrian, gainera. Hori bai, gune hura oso-oso aberatsa da: petrolioa, urrea, uranioa... Narkotrafikatzaileek, berriz, koka landatzeko erabiltzen dute eta estrategia aldetik militarrendako garrantzi handiko gunea da, EEB-Bendako bereziki. Kolonbiaren erdialdean dago lurraldea eta euren dago garrantzitsua da han kokatzea. Eta, gainera, oraindik oso gutxi esplotatua dago hura.

Orain, han bizi direnek gobernuari jakinarazi diote

**«Han 150.000 bat lagun bizi dira, oso egoera larrian, gainera»**

tzeko ez dago errepiderik. Modu bakarra itsasontziz joatea da. Hortaz, itsasontzi handi bat alokatu genuen pertsonak eta gure laguntza eramateko. Hiru tona hornigai eraman ditugu: botikak, lan-tresnak, jantziak eta janaria. Izan ere, han sekulako blokeoa dute: militarra (liskar gogorak daude), ekonomikoa (debekatuta dago ezer sartzea) eta

erresistentzian dauden komunitateak direla eta erabaki dute handik ez direla mugituko. Bai nekazarietara baita meatzarietara ere diote lurrak eta meategiak eurenak direla, erositakoak dira-eta; eta, eskriturak dituzte hori erakusteko.

— Halako egoeran bizi direnak zelan portatu dira zuekin?



# sarraskia egiten ari da»

— Oso-oso jatorrak. Batzuek jatekorik ere ez dute, baina nahiz eta eurendako ezer ez eduki beti dute zerbait beste-ondako. Hara joatearren esker-erak ematen ibili dira etengabe, eta mesedez eskatu digute hango egoera hemen kontatzeko. Eta benetan, guk ikusi duguna zeharo lotsagarria da.

— Egoera latzen bat pasatu duzue...

— Bai, eta ez dakit zer esan, zoritxarrez edo zorionez izan den. Izan ere, egoera txar hura sufritzeagatik komunikabide

guztiekin eman zuten informazioa. Hortaz, lortu dugu helburuetako bat: informazioa zabaltzea.

Gertatu zena izan zen nekazariengana gindoazela, paramilitarrek erabaki zutela guri pasatzen ez uztea; han egon ginen, ibaian, hiru egunez atxikita, erdi bahituta; ez ziguten uzten itsasontzitik irteten. Horrez gain, garraiolariak eta dendariak mehatxatu zituzten... Ez genuen ezta ura eta janaria lortzeko aukerarik ere. Orduan, agintariengana jo genuen esanez gure segurtasuna Kolonbiako gobernuaren

eskuetan zegoela eta baraua egingo genuela urik ez baziguten ekartzen. Azkenean, abuztuaren 8an irten ginen San Pablotik Moralitora, eta hiru egunez egon ginen nekazariekin eta beste hiru meatzariekin. Hortaz, gure helburua bete genuen.

— Helburuak bete dituzue, hortaz, baina hori ez da guztia...

— Ez, hori guztia kanpaina baten zati bat izan da: *Colombia Clama* izenekoa. Orain, bigarren ekintza izango da Auzitegi Internazionala anto-

latzea. Auzitegi horren helburua da Bolivariko hegoaldean jasotako lekukotasun guztiak Bruselan aurkeztea. Nolabait, Kolonbiako gobernuarekin da asmoa, sekulako sarraskia egiten ari baita han. Komunitate guztiak erretzen ari dira. Adibidez, gu han geundela 56 etxebizitza erre zituzten paramilitarrek eta gobernuak ez du ezer esaten. Gainera, badakigu zenbaitzuk paramilitarrek direla gaur eta militarrek bihar. Sekulako indarkeria jasaten dute han: bi gerrilla, ejerzitioa, paramilitarrek eta narkotrafikatzaileak.

Zure gogoko kirola egiteko behar duzun material guztia. Hemendik aurrera, markarik onenak eta zerbitzurik profesionalena oso hurbil izango dituzu. Garibai Etorbidea 2-6 ♯ ARRASATE-MONDRAGON


**SPORTLAND**  
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Fotografia: ARRASATE-MONDRAGON



**GARBIGAILUA**  
**ETA GERO,**  
**DEBAGOIENEAN**  
**EZER EZ DA**  
**BERDIN**





Eskuzko lixiba egiteko lagungarriak egon dira, baina arropa garbitu eta lehortzeko lehen makina 1855ekoa da.

1940ko hamarkadan hasi zen garbigailua mundu zabaleko etxeetan ohiko tresna bihurtzen.

Debagoienean, Bergarako Mayc izan zen aitzindari garbigailuak egiten. Mayc da goialdetik betetzen diren garbigailu-ekoizle bakarretakoa.

Fagorren abiapuntua beste produktu batzuk izan ziren, baina gerora garbigailuak egiten hasi zen, betiere aurrealdetik betetzen direnetakoak.

Egun, bi etxe horiek ari dira eskualdean garbigailuak egiten. Bien artean 1.300 langile dituzte eta 40.000 milioi pezetako salmentak urtean.



# Etxeko konponketak

## Aroztegia

Armairua, hormako armairua, ateak, oholtzak, leihoak etab.



Garagarza auzoa, 5-2.  
(Bixiena Baserría) • ARRASATE  
Tel.: 943 77 02 43  
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA  
Tel.: 943 76 08 10

## Igeltzaritza



*Izcue Irurzun*

Igeltzaritza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

## Leihoak



**ARGI PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.  
Tel./Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Elektrizitatea

**ARANZABAL**



**KOOP. E.**

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza

**Aretxabaleta**

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kanpantorpea, 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 11 35



**ARRASATE**

**Elektrizitatea**

Instalakuntza eta mantatze elektrikoak

**24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77**

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea  
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak  
Gasa • Berogailuak**



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

## Eraikuntzak

**Berecibar**

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63

**APAIN**

**MARGO ETA APAINKETA**

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

**JOVI**

**10.000 KOLORETAKO MENUA**

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

**Txorrota**

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

## Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopiak • Zapata eta  
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren  
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak  
• Pantografo bidezko grabaketa

**Eroski merkataritza zentroa, 1**

Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu  
nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91  
telefonora



## Josu Tornay

Josu Tornayk opor egun batzuk aprobetxatu zituen abuztuan, Badalonako Nazioarteko Xake Txapelketa Irekian parte hartzeko. Helburua txapelketa ona egin eta nazioarteko sailkapenean sartzea zen, eta helburu hori bete du. Nazioarteko sailkapenean sartzeko bi bloke izan behar dira: lehena Arrasateko txapelketan eskuratu zuen, eta bigarrena Katalunian eskuratu berri du. Horrela, Arrasaten dagoeneko bi xakelari ditugu nazioarteko sailkapenean. Lehena Luis Angela Ortega izan zen, eta bigarrena Josu Tornay. Luis Angel 2.155 punturekin irten zen uztaileko zerrendetan, eta Josu Tornay urrian irtengo da 2.110 punturekin.

## Haitz eskalada




Arrasateko Besaide Mendizale Elkartek eta Gipuzkoako Goi Mendi Eskolak haitz eskalada ikastaroa antolatu dute irailaren 22 eta 23rako. Ikastaroa uztaileko prestatua bazegoen ere, azkenean, irailera atzeratzea erabaki zuten. Hastapen mailakoa izango da, hortaz, kirol hori probatzeko gogoia duzuenondako aukera paregabea. Bi ikasleko ira-

kasle bat izango da, baina ikastaroan parte hartzeko derrigorrezkoa da federatua egotea. Izena emateko mugaeguna hilaren 19a, eguaztena, izango da. Hogeita bat urte baino gutxiagokoek eta langabeek 10.500 pezeta ordaindu beharko dituzte eta 21 urtetik gorakoek 12.500 pezeta. Bazkideek 3.000 pezeta gutxiago ordaindu beharko dituzte.

## Frontenis txapelketa

Hilaren 22tik aurrera, frontenisa atsegin duenak aukera paregabea izango du lehian aritzeko. Txapelketan edozeinek parte har dezake, eta bikoteka jokatu da. Txapelketan parte hartzeko, Debagoieneko kirol zerbitzuetako abonatuak mila eta bostehun pezeta ordaindu beharko dituzte jokalaria bakoitzeko, eta gainerakoek bi mila pezeta bikoteko. Partiduak zapatueta jokatu dira, eta lehiaketak bi fase izango ditu: lehenengo fasea liga eran jokatu da, eta bigarren fasea kanporaketekin erabakiko da. Gogoan izan Udazkeneko Frontenis Txapelketa puntuagarria izango dela Debagoieneko Txapelketa Zirkuirako.



## ARGI-PLASTIC

Leihoen fabrikazioa, P.V.C, aluminioa eta poliuretanoa  
Zigorrola, 1 8. Pabeiloia  
Tel.: 943 77 11 30  
ARRASATE



JOSE MARI BARRENA (ARRASATE TRIATLOI TALDEKO PRESIDENTEA)

# «Triatloia ez da jendeak uste duen bezain gogorra»

## Nolatan sortu zenuen Arrasateko Triatloi Taldea?

Kirol hau praktikatzen hasi nintzenean, arazo asko izan nituen berau behar den bezala egiteko. Ez nekien nora jo txapelketetan parte hartzeko, ez nekien nola entrenatu behar nintzen, eta hau guztia aldizkari bidez ikasi nuen. Arrasaten ez zen batere ezaguna triatloia, eta lagunekin berba egin eta gero, hasieran jendea ez zen atrebitzen, kirol gogorragia zelakoan. Eskerrak azkenaldian kirolaren inguruko esamesa asko desagertu diren: esaterako, koipeak kentzeko, plastikoarekin egin behar dela lasterka, eta beste hainbat astakeria.

## Zenbatek osatzen duzue taldea?

Azkeneko hiru urteetan, taldean, urtero, hogeit bat fitxa inguru egin ditugu, eta horrek esan nahi du taldea poliki-poliki sendotzen ari dela. Horrez gain, oso ondo dabilen jendea dago, baina argi utzi behar da kirol hau egiteko ez dela beste munduko atleta bat izan behar. Kirola egitea atsegin duenak kirol hau praktikatzeko aukera paregabea du, eta gero norberak jarriko du neurria. Asko sufritzea ez da batere ona, ez baita kirolaz goza-



Jose Mari Barrenak triatloia Arrasatera ekarri zuela esan dezake, baita herriko lehen taldea eratu zuela ere. Hura hasi zenean ez zegoen horrelakorik, eta Frantzia erosten zituen aldizkariekin ezagutu zuen kirol hau. Argi eta garbi dauka kirola gozatzeko dela, eta sufritzen egotea ez da batere onuragarria. Horregatik, gauza guztiak neurritz egin behar dira.

tzen. Triatloi batean helburua lasterketaz gozatzea izan behar da, eta horretarako, sasoiaren egotea derrigorrezkoa da, baina inoiz ez da astakeriarik egin behar.

## Zer-nolako zailtasunak izaten dituzue?

Gauregun, entrenatzeko hainbat arazo izaten ditugu. Bizikletan ibiltzeko errepideak oso arriskutsuak dira eta, jeneralean, Aramaio aldera joaten gara. Igeri egiteko leku falta izaten dugu, Arrasateko igerilekua txikia da eta jende asko izaten da. Lasterka egiteko

arazo gutxiago izaten dugu.

## Kirol hau jendeak uste duen bezain gogorra da?

Kirol honetan erresistentzia eta indarra behar dira, eta argi dago horretarako entrenamendu apur bat behar dela. Hala ere, beste kirol batzuk fisikoki zein psikikoki askoz ere gogorragoak dira. Triatloian hiru kirol uztartzen ditugu, eta buruak asko eskertzen du hori; hainbat gauza egiten ditugu, eta, hortaz, gaitzagoa da asperetzea. Horrez gain, kirol bakarra egitean gorputzeko atal berak sufritzen du beti, baina triatloian gorputz osoa lantzen dugunez, gutxiago sufritzen dugu.

## Triatloi polit bat?

Asko daude, baina Donostia-koa asko gustatzen zait. Igeriketa Kontxan, lasterka herrian bertan, eta bizikletan Igeldora igotzen gara, oso polita da.

## Eta Arrasatekoa errepititzeko asmoz?

Oso esperientzia ona izan baten ere, sekulako lana dauka horrelako lasterketa bat antolatzeak. Azken batean, dirulaguntzak behar dira, eta kirol talde asko gaudenez... Oraindik ez dugu erabaki.



MARKO-JARTZEAK  
**ALDEDI**

Biteri, 8 • ARRASATE  
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

**GORKA**  
ILEAPAINDEGIA  
LUZAPENAK

**ORDUTEGIA:**  
Astelehenean itxita.  
Asteartetik ostiralera:  
09:30 - 20:00  
Larunbatetan:  
08:00 - 14:30

**SOLARIUMA**  
Ferrerias, 35 ARRASATE  
Tel.: 943 77 13 78



## Atzerapena kiroldegiko lanetan

Musakolako Kirolddegiko lanak bide onetik badoaz ere, barruko igerilekua oraindik ezin izango dute zabaldu, eta kanpoko igerilekuen udako denboraldia irailaren 30a arte luzatzea erabaki dute. Hasiera batean, lanak irailaren 15ean amaitzeko ziren. Eta gauzak horrela, lanen atzerapena dela eta barruko igerilekuetan bainua hartzeko urriaren 6 edo 8ra arte itxaron beharko da, Musakolako Kirolddegiko inaugurazio egunarekin batera. Urriaren lehenengo astean, azken ukituak egingo dizkio te kiroldegiari: sarrera aldatu eta kanpoaldeko espaloia konpondu, hain justu ere. Lanen atzerapenaren ondorioz, eta nahiz eta kanpoko igerilekuak zabalik izango diren, AUKE-Ako bazkideak Aretxabaleta,



Lanak direla-eta, igerilekuak ez dituzte oraindik zabalduko.

Bergara eta Oñatiko igerilekuetara doan sartzeko aukera aztertzen ari dira. Bergarako eta Oñatiko udalek dagoeneko eman dute baimena, eta Aretxabaletako kiroldegiak datarren astelehenean hartuko du erabakia. Kirol ekintzei dago-


kienez, gimnasiako eta aerobiceko eskolak, hasiera batean, irailaren 17an hasiko dira, nahiz eta kiroldegia ireki arte ez diren ikastaro guztiak eskainiko. Informazio gehiago nahi izanez gero, deitu 94371677 telefonora.

## Besaide Eguna


Oraingo domekan, hilak 16, Besaide Eguna ospatuko da. Aurten, Orixol mendi elkarteari tokatu zaio jaieguna antolatzea. Beste behin, mendian hildako euskal mendizaleak gogoratuko dituzte han batu-takoek.

## Reala-Celta

Oraingo asteburuan, Realaren eta Celtaren arteko partidua jokatuko da El Sadar futbol zelaian. Norgehiagoka ikusi gura duten bazkideek Monte tabernara jo beharko dute sarrera aurrez erosteko. Iruñera joateko autobusean lekua erreserbatzeko aukera ere izango da, aurretik bostehun pezeta ordainduta.



**weru**<sup>®</sup>  
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2  
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia  
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95  
ARRASATE



*Salterain*

PVC-zko ate eta  
leihoez gain:  
moketak,  
zoru arinak,  
kortxoak,  
Louverdrape  
kortinak,  
Kortinoba, testila...





## Mertxe Trojaola Beatriz dendakue

Errez esaten dan arren, Beatriz dendak 56 urte beteko ditu aurten, eta Mertxe Trojaolak gazte-gaztetatik egin dau lan denda horretan. Hamaika urtekin hasi zan Beatrizen lanien, hortaz, zapaten gaitien gutxi jakin-go daue Mertxek (eta ahizpak) beste. Ibai Arte merkataritza elkarteko presidentie izan da azken bi urtietan, eta bizi eta lan kale-kalien egin dau beti. Ez leuke bere herrixe, Arrasate, merke salduko.

**-Esaidazu guzur bat.**

-Bixer pakie eukiko dogu.

**-Amets bat.**

-Pakie.

**-Amets txar bat.**

-Munduko gosie.

**-Egin dozun azken biajie.**

-Kanadara. "Rocosas" mendietan egon naz.

**-Txartel horixe, zeñei?**

-Politikuei.

**-Eta gorrixe?**

-Ez noie esatera.

**-Film bat? Liburu bat? Disko bat?**

-Cinema paradiso / Las preocupaciones de Santi Andia / Musika klasikoko edozein.

**-Drogak legalizauko zittukie?**

-Ez dauket oso argi.

**-Eta prostituziñue?**

-Hori be ez dauket argi, baiñe lan horren egoeria hobetuko neuke. Duiñague izeteko lan egingo neuke.

**-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?**

-Txikiteue, duda barik.

**-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?**

-Gauza asko: erdiko kalie, inguruko auzuek eta, batez be, Santa Barbara.

**-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?**

-Batez be, trafikue. Erdiko kalie oiñezkuendako izatiari be ondo deitxot, baiñe gauza batzuetan ez nau bat be ados.

**-Eta lehendakari izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?**

-Oso lan zaille da, zerbait lortzeko derrigorrezkue da alderdi politiko danekin berba egittie.

**-Bizio bat?**

-Lo egittie.

**-Ze gehittuko zeikixo Arrasate Pressei? Eta ze kenduko zeikixo?**

-Ondo dauela pentsetan dot. Neuri ez jatenez gustetan, kirolak kenduko nittuke. Gaur egun, leku danetan dagoz kirolak.

**-Mendi bat?**

-Udalatx.

**-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?**

-Donostiara.

**-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.**

-Horrenbeste dagoz...

**-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?**

-Kalkutako Ama Teresa.



"Behi eruek diela-eta, narrua asko garestitu da; horrenbestez, zapatengaittik gehixago ordaindu biherko dogu"

**-Telebisiñoko programa bat? Eta irratikue?**

-Albistegixek / El quiosco de la Rosi entzuten dot Herri Irratian, eta noizien behin Arrasate Irratia be bai.

**-Zertan gastauko zeunke dirue?**

-Biajetan.

**-Hondartza ala mendixe?**

-Neguen mendixe eta udan hondartza.

**-Lanien zer da gutxien gustetan jatzuna?**

-Hori be ez noie esatera.

**-Zapata asko dauketzu?**

-Ez ba, justuek eukitten dittut.

**-Sekula ikusi dozun hankarik haundixena?**

-Gizonetan 48 eta emakumetan 43. Eta benetako arazue da, tamaña horretako zapata gutxi dago-eta.

**-Zapatak garestitu egin biher diela entzun dogu, ze dala-eta?**

-Behi eruak diela-eta, narrua asko garestitu da.

**-Zulututako galtzerdi asko ikusi dozu?**

-Je, je. Oso gutxi, noizien behin bateron bat... Eta gorri-gorri jartzien die.



# TodoMuebleren ukitu magikoa:



ZERBITZUA  
KALITATEA  
HOBEA  
PREZIOA

Kalitate ukitua baino askoz gehiago. Estilo ukitua baino askoz gehiago. **TODOMUEBLE KABI**Ako ukitu magikoarekin ehunka bizi giro, imajina ditzakezun estilo guztiak, goi kalitatea bermatuta, eta finantzaketan **TODOMUEBLE KABI**AK eskaintzen dizun Formula Bikoitza:

- 6 hilabete deskontuarekin ordaintzeko, eskura ordaintzea balitz bezala. Edo
- 24 hilabete interes barik, eta gura baduzu seigarren hilabetetik aurrera has zaitezke ordaintzen.

Horrez gain, orain, **TODOMUEBLE KABI**AK %5eko deskontua eskaintzen dizu hainbat produktutan: gortinak, estoreak, veneziarrak, eguzki oihalak...

Etor zaitez Arrasateko **TODOMUEBLE KABI**Ara. Gustuko duzun giroan ibiliko zara.



Gipuzkoa Etorbidea, 28  
Tel. 943 792 770 • ARRASATE

Orduategia:  
10:15etik 13:30era  
eta 16:00etatik  
20:00etara.





# Urtebete, auzoz auzo, herritarren zerbitzura

Martitzenean, herri autobusak urtebete egin zuen gurean. Denbora luzez itxaroten izan eta gero, more kolorez margotutako autobusa garajetik irten eta auzoz auzo ibiltzen hasi zen, Leintz Garraioak enpresaren eskutik. Ordu tik hona, 166.705 bidaiari eraman ditu: "Espero genuen kopurua gainditu dugu", adierazi digu Leintz Garraioak enpresako gerente Angel Marcok. Are gehiago, zerbitzua estreinatu zenean egindako aurreikuspenen arabera, asko jota 148.000 bidaiari espero zituzten eta gutxi jota 110.000. Hortaz, %12 gainditu dituzte aurreikuspenik onenak.

Bidaiaririk gehien izan duen hilabetea ekaina izan da, ia 15.500 bidaiari, 616 eguneko. Baina uztaileko zenbait



egunetan ibili da bidaiari kopururik handiena.

Hain justu, uztailaren 13an hautsi zuen marka herri autobusak: 878 bidaiari egun bakarrean. "Baina beste hilabete batzuetako egunetan ere izan dugu 800 bat bidaiari, oraingo asteko martitzenean, adi-

bidez".

Angel Marcok balorazio optimista egin digu: "Etorkizunean, hobetzeko ilusio handiarekin gaude. Lortzen ari garen emaitzak erakusten du herriak beharra zuela eta gu behar hori ondo betetzen ari garela".

## GERALEKU ETA ORDUTEGIAK

San Frantzisko Xabier (%15) eta Eroski (%25) dira jende gehien izaten dituzten gerdalekuak. Orduategirik jendetsuena, berriz, 17:00etatik 20:00etara. Tarte horretan, batez beste, orduko 58 bidaiari izaten ditu herri autobusak. Eta, hasieran moduan, oraindik ere etxeoandreak, erretiratuak eta gazteak dira autobusa gehien erabiltzen dutenak.

Bost autobus eta bederatzi langile ditu orain Leintz Garraioak enpresak. "Zazpi langilerekin hasi ginen eta orain bederatzi ditugu, denak kontratu finkoarekin". Hortaz, badirudi bide onetik doala gure herri autobusa.



Mutilak

gsuso industries

Inaugurazioa ostirala 14, 7etan

Emakumeak



# MAYA

Zarugalde, 10



eta gehiago...

eta gehiago...



# Francesco Tontodonati eta Maurizio Della Chiesa

Adiskideak eta negozioan bazkideak dira Francesco eta Maurizio. Italiarrak dira, Milangoak, baina Arrasaten bizi dira eta taberna-jatetxea daukate hemen. Pizzak egiten dituzte, zelan ez; hori bai, "italiar eran", eurek azpimarratzen dutenez. Hemengo bizimodura zelan egokitu diren, zer duten gustukoen eta zer ez hain gustukoen, euren eguneroko bizitza zelakoa den... jakin gura baduzu, segi irakurtzen!



**-Zelan iritsi zineten lehenengoz Euskal Herrira?**

-Orain dela hamarkadatik gora, Italiako gure lagun batzuek Arrasateko neska talde bat ezagutu zuten. Neskek Maritxu Kajoirako gonbidatu zituzten gure lagunak, izugarri gustatu zitzairen eta gu ere haien gomendioz etorri ginen.

**-Zelakoa izan zen lehenengo inpresioa?**

-Primerakoa. Gasteizko jaientarako etorri ginen, eta oso-oso gustura ibili ginen. Arrasate ere orduan ezagutu genuen.

**-Noiz finkatu zineten Arrasaten?**

-Badira hiru urte eta erdi hemen bizi garela, eta pizzeria orain hiru urte zabaldu genuen. Ordura arte, lau urte edo eman genituen oporretan Arrasatera etortzen, Maritxuak zirela, uda zela...

**-Bistan da hemengo bizimodura erraz moldatu zaretela...**

-Bai. Traba bakarra izan zen ez genuela batere esperientziarik sukaldari edo jatetxe-ko arduradun moduan. Gaztelania agudo asko ikasi genuen, eskolarik hartu barik; euskara, ordea, oso gaitza egiten zaigu, baina gustatuko litzaiguke ikastea. Euskal kultura asko maite dugu.

**-Esaten duten bezain itxiak gara?**

-Zentzu baten egia da; hau da, hasieran, hemengo jendea itxi samarra da, baina ezagutzen duzunera arte. Orduan, ireki egiten da. Dena dela, guk ez dugu aparteko arazorik izan, negozioa zabaldu aurretik lagun asko genituen, eta ez zitzaigun hain gogorra iruditu.

**-Zer gustatzen zaizue gehien**

**Arrasatetik?**

-Giza harremanak. Hemen, jendeak Italian baino sarriago irteten du, eta tabernarik taberna gehiago ibiltzen da. Han, giza harremanak itxiagoak dira: goizean jaiki, lanera joan, etxera bueltatu, eta hortxe bukatzen dira zure egunerokoak. Tabernetara joaterakoan ere, jendeak bizpahiru taber-

natare jotzen du gau baten, ez hemen moduan. Ez dago hain harreman estua. Arrasate herri txikia izanda, guztiok ezagutzen dugu elkar. Horrek bere alde txarra ere badu: zurrumurruak. Baina ez digu axola: ez diegu kasurik egiten, eta kito! Bestalde, familiaren eta adiskide batzuen falta igartzten dugu; baina gustura bizi gara.

## Zeri ari zara itxaroten?

EGIN ZURE MATRIKULA



Garibai, 6 - B ARRASATE Tel.: 943 - 77 11 06

**ESKOLA PARTIKULARRAK**  
• OHO • EII • BBB •  
LH • BT • UBI

**MEKANOGRAFIA**  
• Ordenadore bidez

**INFORMATIKA**

**INGENIARITZA**  
• Matematika I • Kalkulua II  
• Fisika I eta II  
• Termodinamika • Informatika I

**OFIMATIKA**  
• Testu prozesatzailea  
• Datu Baseak  
• Kalkulu orriak

**GAZTELANIA**  
ATZERRITARRENTZAT


**PROGRAMAZIOA**  
• Qbasic • Turbo Pascal  
• Turbo C • Dbase • Cobol...

**ENPRESENDAKO**  
IKASTAROA

**INTERNET**  
• Nabigatzea • Web orriak  
• Posta elektronikoa

• Diruz lagundutako  
langileendako ikastaroak

**PUB HAIZEA**



**U N Z U E T A**

J A T E T X E A

• Eguneko menua • Espezialitatea:  
• Karta Txuleta parrillan

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



BEÑAT LASAGABASTER (DOTAKON JAIALDIKO ANTOLATZAILEA)

## «Ezohiko kultura ekintza izango da Dotakon Jaia»


Dotakon arropa dendako arduraduna da Beñat Lasagabaster arrasatearra. Orain dela lau urte zabaldu zuen denda. Egunotan, ordea, ez dabil arropa kontuetan, jaialdi kontuetan baizik. Izan ere, irailaren 15erako Dotakon Jaialdia antolatatu du.

### –Zer dela eta antolatu duzue jaialdi hori?

–Konturatu nintzen Arrasaten asteburuetarako ez zegoela aukera berririk: betiko tabernak eta dantzalekuak. Jendeak beste zer edo zer eskatzen zuen, eta horixe egitea erabaki genuen. Izan ere, arropa denda bat baino gehiago izan gura dugu, eta bestelako ekintzak ere antolatu. Jaialdiaren ondoren, moda desfilea ere egiteko asmoz gabiltza, Gasteizen egin izan dugun moduan.

### –Zer egin eta ikusi ahal izango da jai horretan?

–DJ Kaiet eta neu, DJ Beñat, hasiko gara. Musika elektronikoa, latindarra, brasildarra... ipiniko dugu. Gero, Sobradun talde gasteiztarak *Herminio y Miguelito* lanaren azkeneko antzezpena eskainiko du. Segidan, Zaragozako Telephunken taldearen kontzertua izango da. Funky motako musika jotzen dute. 23:30ak aldera, Madrilgo DJ Chemak musika afrikar eta etniko saioa eskainiko digu. Bukatzeko, Gasteizko Ortophonk-en kontzertua izango da; talde berrien artean onenatarikoak dira, Bilbo Hiria lehiaketa irabazi dute. Horiek guztiek jotzen duten bitartean, performance bat izango da: tatuajeak egingo dira, proiektuak eskainiko dira... 18:00etatik 03:00ak ingurura arte, etengabe izango zer edo zer egiteko.



zioak eskainiko dira... 18:00etatik 03:00ak ingurura arte, etengabe izango zer edo zer egiteko.

### –Disco jartzaileak izango direla entzutean, askok musika mota jakin batekin lotuko dute jaialdia...

–Horiei esan gura diet disc jockey-ok ez dugula dantzalekuetako ohiko musika ipiniko, beste estilo batzuk baizik, eta, oro har, jaialdia ezohiko kultura ekintza dela, asteburuetan jeneralean egin ezin ditzakegun gauzak egiteko aukera emango digun ekintza. Dena dela, hemen technozale asko dago, baina bestelako musika batzuk ari dira guregana iristen. Neure ustez, adin kontua da.

### –Zeini zuzendua dago festa?

–Hamazazpi urtetik aurrerako edozeinendako da egokia. Horixe da helburuetariko bat, hau da, adin guztietako jendea ekintza bakar baten inguruan elkartzea.

### –Aspalditik zabilzate ospakizuna egiteko asmoz?

–Bai, ez da atzo goizeko kontua: urte eta erdi gabiltza dagoeneko jaialdia egiteko asmoz eta antolaketa lanetan. Baina arazoak izan genituen: dirua, lekua, artistak ekartzea... Bestelako jaialdirik ere egin izan dugu –skate jaialdiak, adibidez-, baina ez Arrasaten. Azkenean, lortu dugu. Soinu aldetik, 10.000 watt izango dira. Argie dagokienez, 24.000 watt.

## « Asteburuan jeneralean egin ezin ditzakegun gauzak egiteko aukera izango dugu »

... LILURA ...  
OIHALAK

Denboraz prestatu  
Maritxurako jantzia

Zerkaosteta, 5 - Behea • ARRASATE • Tel.: 943 - 79 89 72

### ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE



## Bi arrasatear Urruzunon sarituak

Iraitz Agirre Aranguren eta Oihan Zubizarreta Iribecampus mondragoetarrek sari bana irabazi dute Urruzuno literatura lehiaketan. Ez da lehenengo aldia irabazten dutena: iaz ere hala egin zuten.

### PROSA ETA POESIA

Iraitzek, 18 urteko ikasleak, nagusien taldeko hitz lauuko lan onenaren saria eskuratu du *La dolce vendetta* ipuinarekin. Oihan, 16 urtekoa, poesian nagusitu da, gatzetxoan kate-



gorian, *Udazkeneko oster*a poemarekin. Egubakoitzean jaso zituzten sariak Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Orain, gainerako 17 sarituekin bidaian

daude bi arrasatearrak Bretainia, Normandia eta Herbeheretan. Gainera, 40.000 pezeta eta garaikurra ere eskuratu zituzten.

## Parte hartze ona Komiki Ez Sexisten Lehiaketan

Aurten ere, parte hartze oparoa izan du Arrasateko Komiki Ez Sexisten Lehiaketak: 20 komiki inguru jaso ditu Udalak. Lehiaketa horrek laugarren aldia du eta, urtero moduan, Udaleko Emakume, Gazteria eta Euskara sailek antolatu dute. Berorren bidez, gizonetako eta emakumezkoen arteko aukera berdintasuna sustatu gura dute.

Euskal Herriko zein kanpoko marrazkilari eta gidoi-

gileen lanak jaso ditu Udalak. Lehiakide gehienak Gipuzkoa eta Bizkai aldekoak dira, baina badaude baita Espainiakok ere. Izan ere, Arrasateko Komiki Ez Sexisten Lehiaketak geroago eta oihartzun handiagoa du, baita gure mugetatik kanpo ere.

Irabazlea zein den hil bukeran jakingo dugu. 100.000 pezetako sari nagusia eman go dute; gainera, emakume eta gizonen arteko aukera eta

tratu berdintasuna hobeto lantzen duenak 70.000 pezeta irabaziko ditu, eta beste hainbeste emakume egile onenak. Gazte eta Euskara sari bana ere badaude, 35.000 pezetakoa bakoitza.

Iaz, sari nagusia Arrasaten geratu zen, Unai Busturiak irabazi zuen; bestalde, komikigile gaztearen saria Julen Ribas-ek eskuratu zuen, hura ere mondragoetarra. Ea, bada, aurten zer gertatzen den.

## Margolaritza ikastaroa

Datorren astean, Udalak urtero antolatzen duen margolaritza ikastaroan izena emateko epea zabalduko da. Hain zuzen ere, irailaren 17tik 21era izango duzue horretarako aukera, 17:00etatik 19:00etara. Eskolak Monterronen izango dira, eta horra bertara jo beharko duzue izena emateko. Gehienez ere 20 lagun hartuko dira; hortaz, interesik baduzue ez galdu denborarik.

### IRAILETIK EKAINERA

Ikastaroa irailaren 24an hasiko da eta ekainera arte iraungo du. Amaia Bengoa, arte ederran lizentziaduna, izango da irakaslea. Eskolak honako egun eta orduetan izango dira: lanegunetan, 17:00etatik 20:00etara eta zapatuetan, 10:00etatik 13:00etara.

Matrikula 16.500 pezeta kostako da. Materiala Udalak berak ipiniko du. Horrez gain, ikastaroa bukatzerakoan, euren lanak Harresi aretoan erakusteko aukera izan ohi dute ikasleek; seguruenik, aurten ere horrela egingo dute.



## ANE LASAGABASTER HORTZ KLINIKA



- Odontologia orokorra
- Periodontzia eta inplantologia
- Ortodontzia
- Endodontzia
- Kirurgia
- Protesiak
- Ezarpenak
- Estetika
- Hortzen zuritzea

Otalora, 18 solairuartera D • 943 79 13 68  
20500 Arrasate

Ane Lasagabaster eta Karmele Bikuña




# Erakusketa berria Harresi aretoan

Irailaren 14an, margo era-  
kusketa zabalduko dute Itu-  
rriotz kaleko Harresi aretoan:  
Juan González Cuestak hain-  
bat lan erakutsiko ditu. Hila-  
ren 30era arte izango duzue  
margolanok ikusteko aukera.  
Ordutegia honakoa da: lane-  
gunetan 18:00etatik 20:00eta-  
ra eta zapatu eta jaiegunetan,  
aipatutakoaz gain, 12:00eta-  
tik 14:00etara.

## ARETOA, GUSTUKO


Juan González bergararra da  
eta hantxe bizi da, baina Arra-  
saten egiten du lan eta hemen  
erakusteko aukera aprobetxa-  
tu gura izan du. "Harresi are-  
toa oso gustuko dut, eta hemen  
egin gura izan dut nire bakar-  
kako lehenengo erakusketa",  
diosku Juanek. Horrela, bada,  
bere bilduma oparoko oihal



batzuk aukeratu eta Harresi are-  
toan eseki ditu. Natura hilak  
eta paisaiak dira nagusi; tar-

tean, Mondragoeko hainbat  
txoko daude irudikatuta: hala  
nola, Kontzezinoko arkua edo

Udalatx mendia. Euskal Herri-  
ko beste txoko batzuk ere iru-  
dikatu ditu margolariak.



# Loramendi kirolak

[www.loramendikirolak.com](http://www.loramendikirolak.com)



RIP CURL



2ND SKY





# Aitziber Azkondo: "Irratiak *engantxatu* egiten zaitu"

Han eta hemen ibilia da, Venezuelan azkenekoz. Udako denboraldia Euskadi Irratian egin ondoren, Arrasate Irratiko fitxaketa berria dugu Aitziber Azkondo bergararra.

**-Badirudi irratia gustuko duzula.**

Zorionez, telebistan, prentsan eta irratian lan egiteko aukera izan dut, eta esan daiteke irratia nolabaiteko berezitasuna duela. "Engantxatu" egiten zaitu. Zuzenean aritzeak, albisteak emateko azkartasunak, nolabait, kazetaria sendotzen du. Eman beharrekoa eman behar da eta hor ez dago alde egiterik. Ondo edo gaizki egiten den, entzuleei galdetu behar.

**-Euskadi Irratitik Arrasate Irratira etorri zara. Zein alde nabaritu duzu?**

Ezin daitezke konparatu herri irratia Euskadi Irratia moduko komunikabide batekin. Ez dute zerikusirik. Helburuak ezberdinak dira, politika ezberdina erabiltzen dute... Herri komunikabideek geroago eta indar handiagoa hartzen dihardute, eta horren irudi Goiena Komunikazio Taldea. Horrek izugarri pozten nau.

**-Irratian beti daude bi atal, nolabait esatearren: albiste-giak eta programak. Zein nahiago?**


Bietan egin dut lan, eta argi dago albistegietan jarduteak informazioa berehala lortzea



eskatzeko duela. Urduritasun handiagoa dago. Programek alde handiagoa uzten dute eta informazioa sakon daiteke. Hala ere, programak ere luze-

agoak dira, hortaz, informazio gehiago behar da. Beti egon behar da egunak ekartzen duenari begira. Hori da kazetariaren zeregina, nonahi.

## Aho zabalik geratuko zara Arrasate Irratian!







**T**uberkulosia nahiko menderatua daukagun gaixotasuna da. Behintzat, hala-  
xe da gure mundu modernoan. Baina garai batean, gerra ostean, tuberkulosia barra-barra zabaldu zen Mondrago-  
en. Hari aurre egiteko artate-

gi bat ireki zuten: "Dispensario Antituberculoso Industrial". Hain justu, ospitale zahar-  
raren atzeko partean ireki zuten, eta herritar guztiak pasatu ziren handik. 1946. urteko  
uztailaren 28a zen. Mondrago-  
goe tuberkulosi barik utzi arte izan zen zabalik artategia. Guztira, 6.631 mediku-azterketa

egin zituzten.

Bravo izeneko sendagilea Donostiatik etortzen zen asteburuan eta hark erakutsi zien artategian jardun zuten mojarri eta beste sendagileari.

Argazkian agertzen diren gazteak Cerrajerako Aprendiz-  
zen Eskolako ikasleak dira. Eta goiko argazkian agertzen dire-

nak honakoak dira, ezkerretik hasita: On Calixto Yeregui doktorea, Bravo doktorea eta Sor Agustina Martinez de Arenaza Otxoa.

*Berriemailea:*  
Jose Mari Uranga

**500.000 pezeta  
gastatzeko gai zara?**

*Zatoz, erosi eta irabazi  
itzazu 500.000 pezetak*

**ibai-arte**



# NISSAN ALMERA TINO BERRIAK

## SUTAN JARRIKO ZAITU



*San Juanetan,  
zuen alboan*

**2.665.000**  
pezetatik aurrera




SEGURTASUNA



MULTI-LINK  
ESEKIDURA



MODULABILITATEA



Nissan Brake Assist

N.B.A BALAZTAK

**ALDIBI AUTOAK, S.A.**

**ARRASATE-BERGARA-ELGOIBAR**

Zigarrola 1 - Tel.: 943 71 20 02. Faxe. 943 79 65 65.

aldibi@nortekar.com







Garai guztietan...



...une goxoak bizi izan ditugu sukaldean

# IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA Udala Plaza, z/g • Tel.: 943 79 00 43 • BAINU ERAKUSKETA Zarugalde, 52 • Tel.: 943 79 99 42